

Prentsa oharra

Nota de prensa



Udalak bolumen handiko hondakinen eta obra-hondakinen isurketen kontrola areagotuko du

Uztailaren lehen hamabostaldian, obra-hondakinek eragindako gorabeherak % 40 gehiago izan dira, eta tamaina handiko hondakinen bilketa % 11 handitu da, ekainarekin alderatuta.

Donostiako Udalak, Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Zuzendaritzaren bitartez, erantzukizunez jokatzeko eskatu die herritarrei, azken asteotan lehen baino tamaina handiko hondakin, altzari, tresna eta obra-hondakin gehiago bota baitira baimendutako leku, egun eta orduetatik kanpo.

Udal zerbitzuak denetik aurkitzen ari dira edukiontzien ondoan eta bide publikoan: etxebizitzan eduki osoa, pisuetako altzari guztiak eta eraberritzeen ondoriozko hondakinak. Material horiek ezin dira bereizi gabe utzi kaleetan; aitzitik, baimendutako zerbitzu eta esparruen bidez tratatu eta kudeatu behar dira.

Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zinegotzi Iñigo García kezkatuta agertu da hiriko hainbat auzotan gertatzen ari denagatik. «Altzari, tresna eta eraberritze-hondakin ugari ari gara aurkitzen kalean. Ez gara ari altzari puntual bati buruz soilik, baizik eta espaloiak hartzen dituzten hondakin metatuek: pasatzea zailtzen dute eta gure auzoen irudiari eta garbitasunari kalte egiten diete».

Garcíak adierazi du Udalak ikuskapen eta kontrol lanak indartuko dituela puntu gatazkatsuenetan, eta gogorarazi du jokabide horiek Hondakinen Udal Ordenantzaren arau-haustea direla eta zehapena jarri dakiekeela. «Biltzeko sistema bat dago, bai eta ezarritako egun eta ordutegi batzuk ere, eta errespetatu behar dira. Hiriak ezin du onartu etxebizitza bat husteak edo eraberritzeak sortutako hondakinak edukiontzien ondoan uztea. Garrantzitsua da pertsona guztiek hondakin horiek behar bezala kudeatzeko prestatutako zerbitzuak erabiltzea».

2026an, 92 tona obra-hondakin baino gehiago jaso dira, orain arte

Urte hasieratik, bide-garbiketako udal zerbitzuek bide publikoan utzitako 92.620 kilogramo obra-hondakin kendu dituzte. Kontabilizatutako azken hilabeteen, bildutako kantitatea % 35 igo da, aurreko hilabetearen aldean.

Gainera, 2026. urtean zehar, obra-hondakinekin zerikusia zuten 5.400 gorabeherari erantzuna eman behar izan zaie, eta soilik uztailaren lehen hamabostaldian horrelako gorabeherak % 40 igo dira. Tamaina handiko

Prentsa oharra

Nota de prensa

hondakinei dagokienez, uztailaren lehen erdialdean % 11ko igoera antzeman da, ekainarekin alderatuta.

Zinegotziak ohartarazi du, halaber, pilaketa horiek ondorioak izan ditzaketela hiriaren osasungarritasunean. «Hondakinak metatzeak zaildu egiten du bilketa-puntuak garbitzea, eta baliteke, horren ondorioz, izurriak sortzea. Ez gara ari hiriaren irudia zaintzeaz bakarrik: bizikidetzaz, irisgarritasunaz, segurtasunaz eta osasun publikoaz ere ari gara».

Tamaina handiko hondakinak uzteko egunak eta orduak

Udal araudiak ezartzen duenez, altzari, tresna eta hondakin handiak 21:30etik aurrera bakarrik utzi ahal izango dira edukiontzien ondoan, alde bakoitzari esleitutako egunetan:

- Ekialdea: astearte, ostegun eta igandeetan.
- Mendebaldea: astelehen, asteazken eta ostiraletan.

Elementu horiek baimendutakoak ez diren egun edo orduetan botatzea, espaloietan uztea edo oinezkoen joan-etorria eragozteko moduan jartzea udal araudiaren arau-haustea da.

Udalak gogorarazi du zerbitzu hori altzarietarako eta etxeko tresnetarako baino ez dela erabili behar. Hala, sistema hori ezin da erabili obra-hondarrak edo obra-zaborrak, sanitarioak, material arriskutsuak edo jarduera profesionalak sortutako hondakinak botatzeko.

Debekatuta daude hondakin arriskutsuak eta obra-hondarrak

Hiriko edukiontziak etxeko hondakinen zatikietarako instalatu dira, eta horretarako baino ezin dira erabili. Debekatuta dago edukiontzi horien barruan hauek bezalako materialak botatzea edo inguruetan uztea:

- Pinturak eta disolbatzaileak.
- Motor-olioak.
- Pneumatikoak eta bateriak.
- Fluoreszenteak.
- Sanitarioak.
- Obra-hondakin eta hondarrak.
- Merkataritza edo lanbide jarduerak sortutako hondakinak.

Material horiek baimendutako garbiguneetara edo puntu garbietara eraman behar dira; bestela, horretarako prestatutako zerbitzu mugikorrek erabili behar dira; beste aukera bat da material horiek baimendutako enpresek kudeatzea, baldin eta eraberritze edo jarduera profesional baten ondorio badira.

Prentsa oharra

Nota de prensa



«Obra bat egiten duenak sortzen dituen hondakinak behar bezala kudeatzeko erantzukizuna du. Horretarako, Udalak baliabideak eta zerbitzuak eskaintzen ditu. Hemendik aurrera, kontrol eta ikuskapen lanak indartuko ditugu, araudia betetze aldera eta hiria baldintza onenetan mantentze aldera», esan du Garcíak.

Zehapen-araubidea

Hondakinak baimendutako leku, egun nahiz orduetatik kanpo uzteagatik zehapenak jarri daitezke, Hondakinen Udal Ordenantzarekin bat. Arau-hauste larriengatik isuna 1.000 euroraino irits daiteke. Larritzat jotzen dira, besteak beste, honako hauek: tamaina handiko hondakinak edonon edo edonoiz botatzea, zaborra edukiontzietatik kanpo uztea edo hondakinak axolagabe kudeatzea.

Horrelako jokabideak oso larritzat jo ahal izango dira botatako hondakinek bolumen handia badute, hiri-ingurunea nabarmen hondatzen badute edo osasun publikoa nahiz ingurumena arriskuan jar dezaketen material arriskutsuak kontrolik gabe abandonatuta uzten badira.